

Hiru gazte salatu dute Ertzaintzak zauritu zituela Tolosan

ARGIA/LA HAINE :: 21/02/2024

Horrez gain, begian zauritutako gazteari dagoeneko ebakuntza egin diote, eta medikuek aurre ikusi diotenez, ez du lehen bezala ikusiko.

Hiru dira dagoeneko Ertzaintzaren oldarraldiaren *oldarrien* ondorioz Tolosako (Gipuzkoa) inauterietan zauritutako gazteak. Villabonako (Gipuzkoa) 16 urteko gaztea izan zen salatu zuen lehena. Ostein, Tolosan egindako elkarretaratzen batean gaztearen aitak salatu zuen bigarren gazte batek ere foam jaurtigailuak eragindako kolpe bat zuela sudurrean. Berria egunkariak ere argitara eman du hirugarren zauritu bat egon zela.

Familiak iragarri duenez, Tolosako epaile batek ikerketa abiatu du ofizioz eta familiak akusazio partikularra jarri du. Horrekin batera, ertzaintzak zauritutako hirugarren gazteak ere epategietan salatu du gertatutakoa.

Erretinaren haustura geldiarazita

Asteartean, otsailaren 20an, egin zioten ebakuntza begia larri zaurituta duen gazteari, eta familiak azaldu duenez medikuek aurre ikusi bezala atera da ebakuntza. Helburua zen erretinaren haustura geraraztea, gehiago zabaldu ez zedin. Enfokatzeko eta argitasuna behar bezala jasotzeko garrantzitsua da lente kristalinoa. Gazteak oraindik ez daki zein ondorio fisiko izanen dituen, baina ez du lehen bezala ikusiko.

<https://eh.lahaine.org/hiru-gazte-salatu-dute-ertzaintzak>